



## EBAZPENA

### LEA/AVC espedientea. Zenbakia: 413-ZEH-2020

#### Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	2
II. SALATUTAKO GERTAERAK.....	4
III. ENPRESAK.....	5
IV. MERKATUA.....	6
1. Merkatu adierazgarria.....	6
2. Merkatu adierazgarrietan eskainitako zerbitzuen ezaugarriak:.....	7
A. Bidaiarien erabilera orokorreko hiriarteko garraio erregularra Vitoria-Gasteiz / Bilbo / Leioa EHU.....	7
B. Erabilera bereziko bidaiarien hiriarteko garraio erregularra Vitoria-Gasteiz / Bilbo / Leioa EHU.....	8
V. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	9
1. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA.....	10
A. Administrazio Publikoa eta lehia defendatzeko araudia.....	10
B. A-3716 Linean bi geltoki gehitzea (Deustuko Unibertsitatea eta Sarriko).....	12
a. Bidaiarien errepide bidezko garraioa arautzeko araudia.....	12
b. Geraleku berriak.....	13
C. Administrazio-ahalak erabiltzea emakidaren indarraldia amaitu ondoren.....	14
2. LA UNIÓN SA.....	15
A. Nagusitasunezko abusua (LDLren 2. artikulua).....	15
a. Nagusitasunezko posizioa.....	15
b. Abusua eta galerazko prezioak.....	16
c. Abusua eta prezio diskriminatzaileak.....	20
B. Lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea (LDLren 3. artikulua).....	21
a. Lehia-arauak urratzea, prezio-diskriminazioa eta galerazko salmenta.....	22
b. LDLren 3. artikulua babesean salatutako jokabidearen azterketa, LDLren 15., 16. eta 17.2 artikuluei dagokienez.....	23
c. Eragin handia izatea merkatuan.....	24
3. EBAZPENA EMATEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA.....	24
VI. EBAZTEN DU.....	25

#### Osoko bilkura:



Alba Urresola Clavero, presidentea  
Rafael Iturriaga Nieva jauna, bokala  
Enara Venturini Álvarez, bokala  
Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), 2020ko azaroaren 20an egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, ebazpen hau eman du 413-SAN-2020, ALTUBE UNIBERTSITATE ELKARTEA zenbakiko LEA/AVCren espedienteari buruz.

## I. AURREKARIAK

1. 2020ko urtarrilaren 9an, AAA jaunak, ALTUBE UNIBERTSITATE ELKARTEAren (ALTUBE) izenean eta hura ordezkatzuz, aurkeztutako idazki bat sartu zen Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) erregistroan. Esandako idazkiaren bitartez, AUTOBUSES LA UNIÓN SA (LA UNIÓN) enpresa eta BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (BFA) salatu zituen, Bilbo-Gasteiz Errepide bidezko Bidaiarien Garraio Zerbitzu Erregularren A3700 Emakida Bateratuaren kudeaketan izandako jokabide batzuk direla-eta; izan ere, salatzailearen arabera, litekeena da jokabide horiek uztailaren 3ko 15/2007 Legea, Lehia Defendatzekoa, urratzea.
2. 2019ko otsailaren 13an, ALTUBEk salaketa bera jarri zuen Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) Lehiaren Zuzendaritzaren aurrean.
3. 2020ko otsailaren 19an, ALTUBEk jarritako salaketaren kopia bidali zion MLBNk LEA/AVCri, salatutako jokabideak azaltzeko ohar laburrekin batera, Estatuak eta Autonomia Erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2.1 artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz, eta ohar hartan adierazi zion Euskal Autonomia Erkidegoan Lehia Defendatzeko eskumena duten organoei dagokiela gertaera jakin horiek aztertzea.  
LEA/AVCk, jasotako proposamenari jarraikiz, gertaera jakin horiek azertu eta ebazteko eskumena LEA/AVCri zegokiola onartu zuen.
4. 2020ko otsailaren 26an, Ikerketa Zuzendaritzak informazio erresebatua hasi zuen aurkeztutako salaketari buruz, Lehia Defendatzeko Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.



**5. 2020ko ekainaren 24an, LEA/AVCk informazio hau eskatu zion BFaren Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Sailari:**

- Bidaiarien errepide bidezko erabilera bereziko garraio erregularra A3700 Emakida Bateratuan bilduta dagoen eremu geografikoan egiteko baimenen zerrenda, 2016tik 2020ra bitartekoa.
- Administrazio-baimen hori duten enpresek 2016-2020 aldiko urte bakoitzean garraiatutako bidaiari kopurua.
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Sailaren aginduak, A3700 emakida bateratuaren tarifak berrikusteko erabili direnak (2016-2020 aldiko urte bakoitzean).

Informazio hori LEA/AVCri igorri zitzaion 2020ko uztailaren 20an.

**6. 2020ko ekainaren 24an, LEA/AVCk informazio hau eskatu zion Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna Sailari:**

- Bidaiarien errepide bidezko erabilera bereziko garraio erregularra Bizkaiko Foru Aldundiaren A3700 Emakida Bateratuan bilduta dagoen eremu geografikoan egiteko baimenen zerrenda, 2016tik 2020ra bitartekoa.
- Administrazio-baimen hori duten enpresek 2016-2020 aldiko urte bakoitzean garraiatutako bidaiarien kopurua.

Informazio hori LEA/AVCri igorri zitzaion 2020ko uztailaren 13an eta 17an.

**7. 2020ko ekainaren 24an, LEA/AVCk informazio hau eskatu zion LA UNIÓNi:**

- Vitoria/Gasteiz–Leioa UPV-EHU A3716 lineari atxikitako ibilgailu kopurua, 2016-2017 ikasturtetik hasita 2019-2020 ikasturteraino.
- A3716 linean garraiatutako bidaiari kopurua 2016-2017 ikasturtetik hasita 2019-2020 ikasturteraino.
- A3716 lineako hileko, hiruhileko eta urteko bonuen titularren zerrenda, 2016-2017 ikasturtetik hasita 2019-2020 ikasturteraino.
- A3700 emakidaren lineetan erabilera orokorreko errepide bidez bidaiariak garraiatzeko zerbitzu arautua emateagatik erabiltzaileei 2016-2017 ikasturtetik 2019-2020 ikasturtera bitarte kobratu dizkien bonuen prezioak eta banako txartelaren tarifak.

Informazio hori LEA/AVCri igorri zitzaion 2020ko uztailaren 22an, eta informazio gehigarriarekin osatu zen 2020ko uztailaren 30ean.

Era berean, 2020ko irailaren 29an eta urriaren 8an, LA UNIÓNeK akatsak zuzentzeko idazkiak eta emandako informazioaren osagarria igorri zizkion LEA/AVCri.

**8. 2020ko ekainaren 24an, LEA/AVCk informazio hau eskatu zion ALTUBERI:**

- Bere elkartekideen errepide bidezko bidaiarien garraioa egiteko, Altube Elkarteak kontratatutako enpresen zerrenda.
- Autobus kopurua, ibilbideak eta ordutegiak.
- Bazkideen eta hileko, hiruhileko eta urteko bonuen titularren zerrenda.



- Vitoria-Gasteiztik Leioa UPV/EHUrainoko errepide bidezko bidaiarien garraioagatik Altubek bere elkartekideei kobratutako prezioak.
- Vitoria-Gasteiztik Leioa UPV/EHUrainoko errepide bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuaren diru-sarreraren eta gastuen banantzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean jarraitutako 196/2019 PA administrazioarekiko auzien prozeduraren egoera.

Informazio hori LEA/AVCri igorri zitzaion 2020ko uztailaren 28an.

9. 2020ko azaroaren 5ean, LEA/AVCren Ikerketaren zuzendariak ALTUBEk egindako salaketaren inguruko zehapen-prozedura ez hasteko proposamena egin zuen, salatutako jokabideetan lehiaren defentsaren arloko araudia urratu izanaren zantzurik ez dagoela iritzita.

Era berean, interesdun ororentzat konfidentziala izatea proposatu zuen, baita dokumentu hauen pieza banandua sortzea ere:

**1. pieza banandua:**

LA UNIÓNEk LEA/AVCk egindako informazio-eskaerari 2020ko uztailaren 22an emandako erantzuna: 737. foliotik 770.era bitartekoak.

**2. pieza banandua:**

2020ko uztailaren 28an ALTUBEk LEA/AVCren informazio-eskaerari emandako erantzuna: 1091. foliotik 1112.era bitartekoak, 1131. foliotik 1184.era bitartekoak (5. eranskinetik 8.era), baita 1187. foliotik 1268.era bitartekoak ere (10. eta 11. eranskinak).

Proposamen hori formalki aurkeztu zitzaion KEKri data horretan bertan.

## II. SALATUTAKO GERTAERAK

10. ALTUBEk BFA salatu du A-3700 errepide bidezko bidaiarien erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularraren emakida bateratuaren kudeaketa dela medio: Emakidaren ondoz ondoko luzapenak (hiru) eta emakidaren azkentzea, ibilbideak zabaltzea eta aldaketak egitea, merkatuko hirugarren operadoreek parte hartu ahalko luketen prozedura ireki eta garden baten eraginpean jarri gabe.

3716 lineako geraleku berriei eta bidaldien ordutegiei dagokienez, honako administrazio-erabaki hauek aipatu ditu bereziki:

-566/2018 Foru Agindua, ekainaren 21ekoa, Garraioaren arloan eskumena duen BFaren sailarena, zeinaren bidez, alde batetik, geralekuak gehitzen baitira A-3700 emakida bateratuko (Bilbo-Vitoria/Gasteiz eta mendekoak) A-3716 Linean (Gasteiz-Leioa EHU) Bizkaiko unibertsitate-campusarako garraio-zerbitzu publikoa hobetzeko, eta, bestetik, A-3714 eta A-3716 Lineetako bidaldien ordainsariak egokitzen baitira.



-1673/2007 Ebazpena, azaroaren 29koa, BFaren Garraio eta Hirigintza Saileko Garraioko Zuzendaritza Nagusiarena, A3716 linean, besteak beste, hiru geraleku berri egiteko behin-behineko baimena ematen duena: a) Donostia kalea, Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren parean b) Adriano VI.aren kalea, Gasteiz hiribidearekin izkina eginez c) Nieves Cano kalea, Domingo Martinez de Aragon kalearekin izkina eginez.

**11. Era berean, salaketa jarri dio LA UNIÓNi bere ustez Lehia Defendatzeko Legeak debekatutako jokabide hauen pean erori delako: Nagusitasunezko abusua (LDLren 2. artikulua) eta/edo Lehia desleiala (LDLren 3. artikulua).**

- 2018. urtean, LA UNIÓNek A-3716 Linean (Deustuko Unibertsitatea eta Sarriko) geraleku berriak gehitzea eta bidaldien ordutegiak egokitzea eskatu zion Garraioaren arloan eskumena duen sailari. A-3716 Lineako geltoki berriak eta ordutegiak baimendu ondoren, LA UNIÓNek Bidaide Bonu Berde izenekoak ezarri zituen, salatzailearen iritziz, galerazko tarifekin 30 urtetik beherakoentzat eta 65 urtetik gorakoentzat. ALTUBEk uste du LA UNIÓNek ez duela BFaren prezio-politika aplikatu.

### III. ENPRESAK

**12. AUTOBUSES LA UNIÓN SA (LA UNIÓN) (IFK: A48944045), helbidea: Playabarri bidea 2. 48950, Erandio (Bizkaia). 1997. urtean eratu zen ACHA, INCHAURBE y CIA enpresaren ondorengo gisa. Errepide bidezko bidaiarien garraioko enpresa bat da. Bere webgunean agertzen denez, erabilera orokorreko garraio erregularreko, erabilera bereziko garraio erregularreko eta eskatu ahalako garraioko merkatuetan jarduten du.**

LA BURUNDESA SA eta AUTOBUSES ONIEVA SL enpresen akzioduna da (% 100) eta LA UNIÓN ALAVESA SL enpresaren akzioen % 50 ditu.

LA UNIÓNek bidaiarien hiriarteko garraio-zerbitzu publikoa eskaintzen du BFAk 1987. urtean apirilaren 23ko 1492/87 Foru Aginduaren bidez esleitutako A-3700 emakida bateratuaren arabera (Bilbo-Vitoria/Gasteiz eta Eranskinak).

**13. ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA ALTUBE – ALTUBE UNIBERTSITATE ELKARTEA (ALTUBE) (IFZ: G01029222), helbidea: Alaba Jeneralaren kalea 10, 6. solairua, 01005 Vitoria-Gasteiz (Araba).**

ALTUBE irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan erregistratuta dago 1984ko abuztuaren 1az geroztik. Haren helburua, batez ere, Vitoria/Gasteizen eta lurralde mugakideetako (Bizkaia barne) unibertsitate-zentroen arteko eguneroko garraio-zerbitzua bere elkartekideen onurarako soilik kudeatzea da; horretarako, dagozkion kontratuak hitzartuko ditu bidaiarien garraio-konpainiekin.



## IV. MERKATUA

### 1. Merkatu adierazgarria

14. Merkatu adierazgarria Europako Batzordeak lehiaren esparruan Europar Batasuneko araudia ezartzeko erreferentziazko merkatua definitzeko buruz egin zuen komunikazioaren arabera definitzen da (1997ko abenduaren 9ko komunikazioa, DOCE 97/C 372/03), eta produktu-merkatuak eta merkatu geografikoak osatzen dute.

15. Erreferentziazko **produktu-merkatua** honela definitzen da komunikazioaren 7. apartatuan:

Erreferentziako produktu-merkatuak barne hartzen ditu kontsumitzaileek trukagarritzat nahiz ordezkagarritzat dituzten produktu eta zerbitzu guztiak, beren ezaugarriak, prezioa nahiz zertarako erabiliko diren kontuan izanik.

16. Martxoaren 18ko 4/2004 Legean, Errepideko bidaiari-garraioarenean<sup>1</sup>, errepide bidezko bidaiarien garraioak zenbait alderdi kontuan hartuta sailkatzen dira, hala nola duten izaera (publikoa edo pribatua), eragin-esparrua (hirikoa edo hiriartekoa), eta emandako zerbitzuen aldizkakotasuna (erregularrak edo eskatu ahalakoak), duten jarraitutasuna (iraunkorra edo aldi baterakoa) eta ematen zaien erabilera (erabilera orokorra edo erabilera berezia).

17. Produktuari dagokionez, kontuan izan behar da LA UNIÓN eta ALTUBE bi merkatu desberdinetan aritzen direla.

Espediente honetan salatutako jokabideari dagokionez, LA UNIÓNek A3700 emakidaren (Bilbo-Vitoria/Gasteiz eta Eranskinak) emakidadun gisa jarduten du bidaiarien erabilera orokorreko hiriarteko garraio erregularraren merkatuan, eskari orokor bati erantzuteko, aurrez ezarritako ibilbideen barruan eta aurrez finkatutako egutegiei eta ordutegiei lotuta. Zerbitzu hori biztanle guztientzat da eta nahi duen edonork erabil dezake.

Horrela, kasu horretan merkatu adierazgarritzat hartzen da **bidaiarien erabilera orokorreko hiriarteko garraio erregularra**.

18. ALTUBE, bestalde, irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, Vitoria/Gasteizen eta Bizkaiko unibertsitate-zentroen arteko garraio-zerbitzua bere elkartekideei soilik egunero ematea kudeatzen duena. Horretarako, dagozkion kontratuak hitzartzen ditu bidaiarien garraio-konpainiekin, eta konpainia horiek lortzen dute bidaiarien erabilera bereziko hiriarteko garraio erregularrean jarduteko baimena. Zerbitzu hori kolektibo

<sup>1</sup> <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2004/03/0401662a.pdf>



jakin batentzat da, batez ere Bizkaiko unibertsitate-zentroetako ikasleentzat eta langileentzat, aurretik ALTUBEra kidetua badira.

Kasu horretan merkatu adierazgarritzat hartzen da **bidaiarien erabilera bereziko hiriarteko garraio erregularra**.

**19.** 97/C 372/03 Komunikazioaren 8. apartatuan ezartzen denez, honako hau sartzen da erreferentziako **merkatu geografikoaren** barnean:

Eraginpeko enpresek produktuak hornitu eta erreferentziako zerbitzuak ematen dituzten zona; bertan, lehia-baldintzak behar bezain homogeneousak dira, eta hurbileko beste zona geografiko batzuetatik bereiz daitezke, lehenengoan nagusi diren lehia-baldintzak apur bat desberdinak baitira besteetan dauden baldintzekin alderatuta.

**20.** Aztertzen ari garen kasuan, eraginpeko merkatua LA UNIÓÑen emakida bateratuaren A3716 linean egindako ibilbidera, ALTUBErekin elkartekideek egindakoarekin bat datorren ibilbidera mugatzen da, hots, **Vitoria-Gasteizen eta Bilboko eta Leioako unibertsitate-zentroen arteko errepide bidezko bidaiarien garraio-zerbitzura**.

**21.** Laburbilduz, merkatu adierazgarriak Vitoria-Gasteizen eta Bilboko eta Leioako unibertsitate-zentroen arteko erabilera orokorreko eta erabilera bereziko errepide bidezko bidaiarien garraio erregularreko merkatuak dira.

## **2. Merkatu adierazgarrietan eskainitako zerbitzuen ezaugarriak:**

### **A. Bidaiarien erabilera orokorreko hiriarteko garraio erregularra Vitoria-Gasteiz / Bilbo / Leioa EHU.**

**22.** LA UNIÓÑek kudeatutako A-3700 emakida bateratuak linea hauek hartzen ditu:

- A3711 Bilbo / Otxandio / Vitoria-Gasteiz
- A3712 Bilbo / Ubidea / Vitoria-Gasteiz
- A3713 Bilbo / Murgia / Vitoria-Gasteiz
- A3714 Bilbo / Autobidea / Vitoria-Gasteiz autobidez
- **A3716 Vitoria-Gasteiz / EHU-UPV (LEIOA)**
- A3718 Gallarta / Bilbo / Vitoria-Gasteiz
- A3719 Algorta / Bilbo / Vitoria-Gasteiz

**23.** ALTUBEk jarritako salaketa A3716 Vitoria-Gasteiz / EHU-UPV (LEIOA) lineari buruzkoa da. Linea hori 1997an sartu zen A3700 emakidan, A3718 eta A3719 lineekin



batera, abenduaren 30eko 1980/1997 Foru Aginduaren bidez. Agindu hori Garraioko foru-diputatuarena da eta luzatzeko edo mendeakoak hartzeko da.

24. LA UNIÓNEK emandako informazioaren arabera, Bilbo / Vitoria-Gasteiz A3700 emakida bateratuari atxikitako ibilgailuak 29 autobus dira guztira, eta autobus horiek modu berean erabiltzen dira emakida osatzen duten linea guztietan. Ez dago A3716 linearako berriaz atxikitako ibilgailurik.

25. Honako taula honetan agertzen da A3716 linean 2016-2020 aldiran garraiatutako bidaiarien kopuruaren bilakaera. Aurreko urtearekin alderatuta, bidaiari kopurua % 4,66 igo zen 2019an.

A3716 LINEAN GARRAIATUTAKO BIDAIARIEN KOPURUAREN BILAKAERA		
2017	2018	2019
% 0,52	-% 2,30	% 4,66

Iturria: Geuk egina, LA UNIÓNEK emandako datuak oinarri hartuta

26. 2019ko irailean, LA UNIÓNEK Bidaide bonua ezarri zuen A3716 linean, A3700 emakidako beste linea batzuetan (A3714, A3718 eta A3719 lineetan) 2016az geroztik gutxienez indarrean zegoena. Bonu horrek astelehenetik ostiralera bidaiatzeko aukera ematen du, hilekoa, hiruhilekoa eta urtekoa izan daiteke, eta deskontu handiak eragiten dizkie egunero bidaiatzen duten erabiltzaileei.

Adinaren arabera, bi tarifa desberdin daude: Bidaide bonu gorria, 31 urtetik 64 urtera bitartekoentzat eta Bidaide bonu berdea, 30 urtera bitartekoentzat eta 65 urtetik gorakoentzat.

27. A3716 linean aplikatzen diren prezioak ondorengo taulan bildu dira.

LA UNIÓNEN TARIFAK, 2019-2020 A3716 VITORIA-GASTEIZ / BILBO / LEIOA UPV LINEA												
Linea	km	Arrunta		Hilekoa			Hiruhilekoa			Urtekoa		
		€/bidai a	€/km	€/hilabete	€/bidai a	€/km	€/hiruhileko a	€/bidai a	€/km	€/urtea	€/bidai a	€/km
Bonu berdea	81,5	7,70	0,09448	110,00	2,75	0,03374	275,00	2,29	0,02812	795,00	1,94	0,02379
Bonu gorria	81,5	7,70	0,09448	220,00	5,50	0,06748	530,00	4,42	0,05419	1.752,30	4,27	0,05244

## B. Erabilera bereziko bidaiarien hiriarteko garraio erregularra Vitoria-Gasteiz / Bilbo / Leioa EHU

28. BFAk du erabilera bereziko garraio erregularreko baimenak emateko eskumena, betiere helmuga-zentroa Bizkaiko Lurralde Historikoan badago.





Ondorengo taulan, BFAk 2019-2020 ikasturtean A3700 emakidaren eremu geografiko berean emandako baimenak bildu dira.

JATORRIA ARABAN ETA HELMUGA BIZKAIKO UNIBERTSITATE-ZENTROETAN DUTEN UNIBERTSITATEKO LANGILOEEN ERABILERA BEREZIKO GARRAIO ERREGULARRERAKO BAIMENAK. 2019-2020 IKASTURTEA	
BAIMEN-ZENBAKIA	JATORRIA/HELMUGA
2020/196	VITORIA-GASTEIZ - EHU (LEIOA) VITORIA-GASTEIZ - BILBOKO UNIB. - EHU (LEIOA)
2020/236	VITORIA-GASTEIZ - BILBOKO UNIB.- EHU (LEIOA) VITORIA-GASTEIZ - EHU (LEIOA)
2020/237	VITORIA-GASTEIZ - EHU (LEIOA)
2020/197	VITORIA-GASTEIZ - EHU (LEIOA)
2020/239	VITORIA-GASTEIZ - EHU (LEIOA)
2020/194	AMURRIO - EHU (LEIOA)
2020/238	VITORIA-GASTEIZ - BILBOKO UNIB.
2020/195	VITORIA-GASTEIZ - BILBOKO UNIB.
2020/235	VITORIA-GASTEIZ - BILBOKO UNIB.

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia

29. Elkartekide kopuruari dagokionez, 2017-2020 aldian ALTUBEren bidaiariak izandako bilakaera jasotzen da ondorengo taulan. Ikus daitekeenez, bidaiari kopurua % 3 igo da 2019-2020 ikasturtean.

ALTUBEREN ELKARTEKIDEEEN BILAKAERA		
2017-2018	2018-2019	2019-2020
% 4,6	-% 2,1	% 3,0

Iturria: Geuk egina, ALTUBEK emandako datuak oinarri hartuta

30. Honako hauek dira ALTUBEk Vitoria-Gasteiztik Bizkaiko unibertsitate-zentroetarainoko zerbitzuarengatik bere elkarteko kideei aplikatzen dizkien prezioak:

ALTUBEREN TARIFAK 2019-2020 ikasturtea										
	km	Hilekoa			Hiruhilekoa			Urtekoa		
		€/kuota	€/bidaia	€/km	€/kuota	€/bidaia	€/km	€/kuota	€/bidaia	€/km
Vitoria-Gasteiz / Bilbo / Leioa EHU	81,5	120,00	3,00	0,03681	290,00	2,42	0,02965	795,00	1,94	0,02379

## V. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

31. ALTUBEk BFA eta LA UNIÓN enpresa salatu ditu Bilbotik Vitoria-Gasteizerako A-3700 erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio erregularraren emakida bateratuan lehiaren kontraktotzat hartzen dituen egintzengatik, zehazki, Vitoria-Gasteiztik EHUra bitarteko 3716 lineari dagokionez.



## 1. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

**32.** ALTUBEk BFA salatu du A-3700 emakida bateratuaren kudeaketan egindako jarduketengatik. Jarduketa horiek ebazpen honen 10. lerrokadan aipatu dira.

ALTUBEren iritziz, BFAk ez ditu lehia defendatzeko arauak errespetatu bidaiarien errepide bidezko Bilbo eta Vitoria-Gasteiz arteko garraio-zerbitzu publikoari eta erregularrari dagokionez; izan ere, 32 urte dira zerbitzu horren merkaturak erabat itxita dagoela operadore berrientzat, emakida iraungita egon arren, eta enpresa emakidadunak merkaturak dagoen lehia urria kanporatzeko jarduketak egitea ahalbidetu du, lehia desleialeko egintzak eginez edo emakidaren xedea zabalduz, sektoreko arauak eta lehia defendatzeko arauak alde batera utzita.

**33.** ALTUBEk auzi orokor bat gauzatu nahi du BFAk A-3700 Emakida Bateratuko A-3716 Linean egindako kudeaketari dagokionez. Hala ere, ez da bidezkoa salatzaileak lehiaren defentsarako araudiaren babespean egin nahi duen erabilera egitea, ondoren azalduko dugunaren arabera.

**34.** BFA bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko Bilbo eta Vitoria/Gasteiz arteko garraio-zerbitzu publiko erregularraren titularra da, eta 1987. urtean ACHA INCHAURBE Y COMPAÑÍA (gaur egun, LA UNIÓN SA) enpresari esleitutako A-3700 Emakida bateratuaren bitartez kudeatzen du.

**35.** Emakida horren kudeaketan, BFAk hartutako erabakiak errepide bidezko bidaiarien garraioa arautzen duen araudi sektorialak esleitutako administrazio-ahalmenak betetz hartu ditu.

### A. Administrazio Publikoa eta lehia defendatzeko araudia

**36.** Administrazio Publikoek merkaturak parte hartzen badute eta, gainerako eragileekin lehian, beren zerbitzuak eskaintzen dituzten eragile ekonomiko gisa jarduten badute, LDLren aplikazio-eremu subjektiboan sartzen dira, eta, hortaz, arau-hauste baten erantzule izan daitezke. Hala ere, eraginpeko merkaturak operadore ekonomiko gisa jarduten ez badute, lehia defendatzeko arauditik kanpo geratzen dira. Horixe da BFAren kasua A-3700 emakida bateratuan.

LDLren laugarren xedapen gehigarriak honako hau dio:

1. Lege honetan aurreikusitakoetarako, ondorengo izango da enpresa: jarduera ekonomiko bat burutzen duen edozein pertsona edo erakunde, erakunde horren estatutu juridikoa eta finantzatzeko modua dena delakoa izanik ere. (...)

Horri buruz, Auzitegi Gorenak maiz nabarmendu du administrazio publikoak lehiaren defentsarako araudiaren mende daudela zeharo, eta, horrenbestez, eragile



ekonomikoaren izaera dutela. Adibidez, Auzitegi Gorenaren 2007ko ekainaren 19ko epaiak (ECLI: ES:TS:2007:4763) honako hau adierazi zuen:

(...) administrazio publiko gisa diharduten administrazio publikoek lehia-eskubidearen gainean duten jardunari [dagokionez], esan behar da araudi horren mende daudela zeharo administraziook, eta ez dio kontrakoa Lehiaren Defentsarako Legearen 10. artikulua hitzez hitz hartuta, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak horixe argudiatu arren. Baiki, manu hori eragile ekonomikoari buruz ari denean, ez da ulertu behar manu horretan bertan zehaztutako zehapenetatik bat jaso dezaketen zuzenbide pribatuko eragileei buruz soilik ari denik, eta zuzenbide administratiboaren mende daudenak salbuesten direnik; izan ere, eragile ekonomiko deritza **merkatuan diharduen edozein subjektuari**, baita, beraz, administrazio, erakunde eta sozietate publikoari ere, nahiz eta horiek zuzenbide administratiboaren mende egon gutxiago edo gehiago.

Edo Auzitegi Gorenaren Epaia, 2013ko ekainaren 14koa (ECLI: ES:TS:2013:3139) honako hau adierazi zuen:

Aurreko horiek guztiek ez dute baliorik, ordea, edozein administrazio publikoren jarduna *imperium* eskumenen arabera izan behar, merkatuan parte hartu eta, beste eragile batzuekin lehiari, bere zerbitzuak eskaintzen dituen eragile ekonomikoarena denean. Errekurtsoa jarri duen udalak berak onartzen duen moduan, «Administrazioak gainerako eskubide-subjektuen, operadoreen edo eragileen jokabidea bezalakoak badu merkatuan, Lehiaren Defentsarako Legean jasotako debekuak bete beharko ditu, gainerakoek bezala». Azken ondorio hori guztiz zuzena ez dela esan badugu ere –izan ere, Administrazioak Lehiaren Defentsarako Legean xedatzen diren debekuak bete behar ditu, non eta bere ekintzak ez dauden berariaz babestuta lerrun bereko beste arau batean–, baliagarria da eztabaida errekurtsogileak darabiltzan terminoetara ekartzeko. Hala, hizpide dugun kasuan, kontua da ebaztea udala (...) ahalmen administratiboaren arabera edo eragile ekonomiko gisa aritu zen.

Era berean, Auzitegi Gorenaren 2016ko uztailaren 18ko epaiak (ECLI: ES:TS:2016:3525) honako hau adierazi zuen:

(...) botere publikoaren ahalak erabiltzea dakarten jarduerak lehiari buruzko arauak aplikatzeko eremutik kanpo daude eta merkatuan operadore ekonomiko gisa badihardute baino ezingo dira horien subjektu arau-hausletzat jo (...).

(...) lehiaren zuzenbidearen esparruan, enpresaren kontzeptu zabal eta funtzional bat erabiltzen da; hala, garrantzitsuena ez da jokabidea duen subjektuaren estatus juridiko eta ekonomikoa, baizik eta bere jokabideak merkatuaren lehiari emaitza ekonomikoki kaltegarria edo mugatzailea eragitea edo eragiteko bidea ematea. (...) Zalantzarik gabe, kasu batzuetan, lehia-eskubidearen balizko urraketa hori modu formalean egindako administrazio-egintza batenez, edo xedapen orokor bat, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak –edo, hala dagokienez, lehiaren defentsako eskumenak dituzten autonomia-erkidegoek– xedapena edo egintza aurkaratu beharko du administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, 15/2007 Legearen 12.3 eta 13.2 artikuluetan xedatutakoarekin bat. Lehiaren defentsako agintarien erreakzio-gaitasuna baina, ezin daiteke aurkaratze-bide horretara mugatu (...).

Aurrekoen zentzu berekoa da Auzitegi Gorenaren 2017ko uztailaren 27ko epaia (ES:TS:2017:3131).



37. Izan ere, LDLren urraketa egotz lekieke administrazio publikoei, baldin eta eskuduntza publiko horiek gainditzen badituzte lehiaren aurkako itun baten mesedetan<sup>2</sup>.
38. Aitzitik, Administrazioek legez esleitutako administrazio-ahalmenak baliatzen dituztenean eta horiek merkatuetako lehia mugatzen dutenean, lehia-agintaritzak auzitegietan aurkaratze-bidea erabili beharko du. Izan ere, lehia-arloko agintaritzek legitimazio aktiboa erabili behar dute –LDLren 13.2 artikulua eta, gurean, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.4 artikulua emandakoa– administrazio-egintzak edo erregelamendu-xedapenak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko, edo sustapen-lanak egin ditzakete aipatu administrazio horien aurrean, merkatuan lehia iraunaraztera edo berrezartzera zuzendutako proposamenak aurkeztearen bitartez.
39. Salatzaileak lehiaren araudiaren aurkakotzat hartzen dituen administrazio-egintzetatik, LEA/AVC honek 566/2018 Foru Aginduari dagokionez soilik jarri ahal izango zukeen abian aurkaratze-mekanismoa, betiere Agindu horrek lehiari eusteko eragozpenak ekar bazitzakeen. Salaketa aurkeztu zenean, ordea, amaituta zegoen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea.
40. Hala eta guztiz ere, aztertu dugu BFAk, LA UNIÓNEk eskatuta, 2018. urtean egindako geltokien gehikuntza *contra legem* egin ote den ALTUBEk azaldutakoa kontuan hartuta.

## **B. A-3716 Linean bi geltoki gehitzea (Deustuko Unibertsitatea eta Sarriko)**

### **a. Bidaiarien errepide bidezko garraioa arautzeko araudia**

41. Martxoaren 18ko 4/2004 Legeak, Errepideko Bidaiari Garraioarenak (EBGL) bere 19. artikuluan ezartzen duenez, erabilera orokorreko bidaiari-garraio publiko erregular iraunkorrek Administrazioa titular duten zerbitzu publikoen izaera dute. Zerbitzu publiko hori, oro har, administrazio-emakidaren bitartez gauzatzen da (EBGLren 21. artikulua). Errepide bidezko bidaiarien garraio-zerbitzu publikoaren emakidak izaera eskusiboz esleitzen direla ulertzen da, eta, indarrean dauden bitartean, ezin izango dira ezarri linea bereko garraio-zerbitzuak betetzen dituzten beste emakida batzuk,

<sup>2</sup> LEA/AVCren Ebazpena, 7/2013 espedientea, Arabako Obra Publikoak.

[https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/eu\\_resoluci/Eusk%20RESOLUCION%20arabako%20lanak%20definitiva%20sin%20firmas.pdf](https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/eu_resoluci/Eusk%20RESOLUCION%20arabako%20lanak%20definitiva%20sin%20firmas.pdf) .

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ebazpena, S/0167/09 espedientea, Jerezko mahats eta ardo ekoizleak.

[https://www.cnmc.es/sites/default/files/86308\\_6.pdf](https://www.cnmc.es/sites/default/files/86308_6.pdf)



interes publikoko arrazoi oinarrituengatik erregelamenduen bidez salbuesten diren kasuak izan ezik (EBGLren 23.1 artikulua).

42. EBGLren 26. artikuluan ezartzen denez, zerbitzua emakida-tituluan finkatutako baldintzetan eskaini beharko da, eta zerbitzu nagusiaren mendeko administrazioak, bere kabuz edo emakidadunek nahiz erabiltzaileek eskatuta, emakida-tituluan aurreikusita ez dauden aldaketak egin ahal izango ditu zerbitzua eskaintzeko baldintzetan, baita, zerbitzua hobeto eskaintzeko beharrezkoa edo komenigarria bada, titulu-tako ibilbideak zabaldu, murriztu edo ordezkatu ere. Aldaketa horiek zabalkuntzak edo mendekoak badira, ustiapen-unitate gisa eskaini behar den zerbitzu nagusiaren luzakin huts direnean soilik izango dira bidezko.
43. Bestalde, apirilaren 3ko 51/2012 Dekretuak, Errepideko bidaiari-garraioaren erregelamendua onartzen duenak, bere 34.1 artikuluan ezartzen duenez, baldintza-agirian edo lizitazio-iragarkian aurreikusita badaude, ez dira zerbitzu publikoko kontratuaren aldaketa gisa hartuko zerbitzua emateko baldintza jakinetan egiten diren aldaketak, hala nola, egutegia, bidaldien ordutegia, ibilgailuak berritzea eta geralekuen kokapen geografikoa.
44. Azkenik, irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuak, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Araudia onartzen duenak, bere 95.2 artikuluan ezartzen duenez, Administrazioak soilik behartu ahal izango du geraleku baten kokapena aldatzera erabiltzaileentzako arreta hobetzeko edo errepideko zirkulazioaren antolamendutik edo bide-segurtasunetik eratorritako arrazoiengatik.

#### **b. Geraleku berriak**

45. BFAk eta ACHA INCHAURBE Y COMPAÑÍA enpresak 1987ko uztailaren 5ean sinatu zuten errepide bidezko bidaiarien Bilbo eta Vitoria-Gasteiz arteko garraio publiko erregularraren emakida-kontratuaren 2.2 klausulan – bidaiariak eta mandatuak hartzeko eta uzteko nahitaezko geralekuei buruzkoan– ezartzen denez, nahitaezko geralekua duten herrietan –zeinetan geralekua hirigune barruan egin behar baita– Bizkaiko Garraioen Zuzendaritza Nagusiak zehaztuko ditu bidaiariak itzaroteko eta bidaiariak iristeko lekuak, dagokion udalari entzun ondoren.
46. BFAk, 2018ko Foru Aginduen bitartez, geralekuak gehitu ditu Bilbon (Deustuko Unibertsitatea eta Sarriko) A-3716 Linean (Gasteiz- Leioa) eta linea horretako bidaldien ordutegiak egokitu ditu, legeak emandako administrazio-ahalmenak erabilia.
47. Hain zuzen ere, hori adierazi baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak 247/2020 epaian, ALTUBEK



aipatutako Aginduaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ebaztean, honako hau esanez:

«Beraz, behin-behineko edo bigarren mailako aldaketak dira, funtsezkoak ez direnak, errekurtsogileak legez ezarritako prozeduraren ez-betetzea alegatzeko arrazoi gisa adierazten duen bezala; jendaurreko informazioaren izapideak eta geraleku berriei eutsiko dien azpiegiturari buruz organo edo erakunde eskudunak emandako aldeko txostena (LGARren 95. artikulua)». Zortzigarren Oinarri Juridikoa)

«Errekurtsogileak ez du zalantzan jartzen transkribatu berri den testuan jasotako inguruabarra edo aipatutako geralekuak gehitzeak unibertsitate-kolektiboari onura dakarkion, baizik eta A-316 linearen ibilbidean, Bilboko udal-mugartearen barnean, izandako aldaketa horrek garraio-linea horren erabiltzaileen interes orokorra asebetetzen ote duen. Izan ere, alderdi horren arabera, gehikuntza hori emakidadunak erreferentziako lekuetan geldialdia duten bidaiariak (unibertsitarioak) erakartzeko duen interesaren ondorio baino ez da; eskari horri Elkarrekin kontratatutako erabilera bereziko garraio-zerbitzuak erantzuten dio.

Bada, xede diren bi geralekuek nagusiki unibertsitate-kolektiboaren eskariari erantzuteak ez du A-3716 linearen erabiltzaileen interes orokorraren aurka egiten, linea horren erabiltzaile guztiek, eta ez unibertsitate-kolektiboak bakarrik, bidaia baitezakete gehitutako geralekuetaraino edo geraleku horietatik; eta kolektibo horrek, bereizi gabe, garraio-linea horren erabiltzaileen kolektiboa osatzen du». (Bederatzigarren Oinarri Juridikoa)

«Garraio-zerbitzu publikoa emateko baldintzen aldaketak, emakida-tituluan aurreikusi ez badira ere, ez dira zerbitzu hori emateko esleitutako kontratuaren aldaketatzat hartuko, kasu honetan bezala, bidaldien ordutegiari eta geralekuen kokapenari soilik eragiten dietenean, gorago transkribatutako Errepideko bidaiari-garraioaren erregelamenduaren 34.1 artikulua arabera.

Aldaketa horiek ez dute A-3716 eta A-3714 lineen ibilbidea funtsean aldatzen, ez dute berekin ekartzen linea horiek zabaltzea edo mendekoak sortzea, baizik eta helmugako udal-mugartean (Bilbo) geralekuak gehitzea eta ordutegiak egokitzea soilik, eta ustiapen-unitateari eutsi egiten zaio». (Hamargarren Oinarri Juridikoa)

48. Hori dela eta, zerbitzu publikoaren titularra den Administrazioak 3716 linean geraleku berriak ezartzea eta bidaldien ordutegiak egokitzea ez da irregulartzat hartu, legeak emandako ahal publikoen arabera egin baita, eta, beraz, lehiaren defentsarako arauditik kanpo geratu da. Egiaztatu da zuzenbideari lotuta dagoela, aurreko atalean deskribatu dugun bezala.

### **C. Administrazio-ahalak erabiltzea emakidaren indarraldia amaitu ondoren**

49. ALTUBEren iritziz, amaitu da emakidaren indarraldia (hiru aldiz luzatu da) eta zalantzan jartzen du administrazio-ahalak erabiltzea indarraldia amaitu ondoren. Horri dagokionez, LEA/AVC bat dator bidaiarien errepide bidezko hiriarteko garraioaren emakiden indarraldiaren luzapenari buruz eta hasieran ezarritako epetik haratago dakarren merkatu-itxierari buruz salatzaileak egiten dituen gogoeta kritikoekin.



Hala ere, Bidaiarien Garraio Publikoaren Legearen 24.2 artikulua ezartzen duenez, emakidaren epea amaitzen bada eta artean zerbitzuaren hurrengo eskaintza zehazteko prozedura ebatzi gabe badago, emakidadun enpresak prozedura hori amaitu arte luzatuko du zerbitzuaren kudeaketa; dena dela, enpresa hori ez da behartuta egongo kudeaketa hori hamabi hilabete baino luzaroago jarraitzera.

Beraz, emakidaduna zerbitzu publikoa ematen ari den bitartean, Administrazioak prerrogatiba publiko guztiak ditu zerbitzua behar bezala emateko eta interes publikoa asebetetzeko.

## **2. LA UNIÓN SA**

**50.** Arestian adierazi dugunez, LA UNIÓNek, 2018. urtean, A-3716 Linean (Deustuko Unibertsitatea eta Sarriko) geraleku berriak gehitzea eta bidaldien ordutegiak egokitzea eskatu zion Garraioaren arloan eskumena duen sailari. Behin BFAk geraleku berriak baimenduta, LA UNIÓNek Bidaide Bonu Berde izenekoak ezarri ditu, salatzailearen iritziz, galerazko tarifekin 30 urtetik beherakoentzat eta 65 urtetik gorakoentzat.

### **A. Nagusitasunezko abusua (LDLren 2. artikulua)**

**51.** LA UNIÓN A-3700 emakida bateratuan bidaiarien garraio-zerbitzua ematen duen operadore ekonomikoa da.

#### **a. Nagusitasunezko posizioa**

**52.** Emakida legez eskusiboki eman dela ulertzen da (EBGLren 23. artikulua). Horregatik, LA UNIÓN monopolista da A-3700 emakida bateratuan eta nagusitasunezko posizioa du bertan.

**53.** Enpresa bat nagusitasunezko posizioan egotea ez da berez legez kontrakoa, eta are gutxiago kasu honetan, non LA UNIÓNen nagusitasunezko posizioa Administrazio Emakidako kontratu batean oinarritzen den eta, beraz, legezko hartzen den.

**54.** Nagusitasunezko posizioa honela definitu da: enpresa batek duen botere ekonomikoko egoera, enpresa horri aukera ematen diona erreferentziako merkatuan benetako lehia egon dadin eragozteko; horrek aukera ematen dio bere lehiakide,



bezero, eta, azkenik, kontsumitzaileekiko independentzia-maila nabarmenarekin jokatzeko<sup>3</sup>.

- 55.** Erreferentziako merkatuan LA UNIÓNeK nagusitasuneko posizioa izateari dagokionez, LA UNIÓN da A3700 emakidaren onuraduna. Emakida hori erabilera orokorreko hiriarteko bidaiarien garraio erregularreko merkatuan ematen ditu bere zerbitzuei buruzkoa da, eta, beraz, monopolio-posizioan egiten du bere jarduera, BFArekin sinatutako kontratua betez.
- 56.** Arestian adierazi dugunez, LA UNIÓN enpresa eta ALTUBEK kontratatutako enpresak bi merkatu desberdinetan aritzen dira. Lehenengo enpresa emakidadun gisa aritzen da erabilera orokorreko hiriarteko garraio erregularreko merkatuan eta bigarren enpresek, aldiz, erabilera bereziko hiriarteko garraio erregularreko merkatuan egiten dute beren jarduera.
- 57.** Horregatik, LA UNIÓNeN jokabidea, hala badagokio, aipatutako 2. artikuluan txertatu ahal izateko baldintzak egiaztatu behar dira: enpresa bat nagusitasuneko posizioan egotea merkatu adierazgarri jakin batean eta posizio hori abusuz erabiltzea.
- 58.** Lehiarako eskubidearen aplikazio-eremuan, erabaki ugari zehaztu dute enpresa arau-hauslearen merkatu adierazgarrian nagusitasuneko posizioa dagoela, baina jokabidearen ondorioak lotutako merkatu batera hedatzen dira<sup>4</sup>.

Estatuko eta EBko jurisprudentziarekin bat etorriz<sup>5</sup>, egiaztatu nahi da posizio horretatik LA UNIÓNeN jokabidea (i) LDLren 2. artikuluan aurreikusitakoan sar daitekeen abusua ote den, (ii) bidegabea ote den, eta (iii) ondorio baztertzalea eragiten ote duen. Gai horiek guztiak ondoren aztertuko dira.

## **b. Abusua eta galerazko prezioak**

- 59.** ALTUBEK salatu du LA UNIÓNeK merkatuan duen nagusitasuneko posizioaz abusatu duela, zehazki, A3716 linean Sarrikoko eta Deustuko geralekuak gehitu dituelako eta

<sup>3</sup> Ikus 27/76 auzigaia, United Brands Company eta United Brands Contintental/Batzordea, 65. apartatua; (ECLI:EU:C:1978:22) eta 85/76 auzigaia, Hoffmann-La Roche & Co./Comisión, Errek. 1979, 38. apartatua (ECLI:EU:C:1979:36).

<sup>4</sup> Justizia Auzitegiaren Epaia (Bosgarren Sala), 1996ko azaroaren 14koa, Europako Batzordearen aurkako Tetra Park Internacional SA kasuan, 333/94 Auziari buruzkoa eta azken erabakiak, hala nola ACCOren 2017ko abenduaren 13ko Ebazpena, 78/2016, Taximetroak Espedientea eta MLBNren 2017ko ekainaren 8ko Ebazpena, S/DC/0557/15 NOKIA Espedientea.

<sup>5</sup> Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 10eko epaia, Errek.: 3568/2015 HP, eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren C-418/01 IMS Health epaia, besteak beste.





2019-2020 ikasturtean Bidaide bonuak ezarri dituelako, galerazko prezioak ezarriz, eta hori guztia ALTUBE merkatutik kanporatzeko.

- 60.** Lehenik eta behin, adierazi behar da LA UNIÓÑek ez duela Vitoria-Gasteizen eta Bilboko nahiz Leioako unibertsitate-zentroen arteko erabilera bereziko lotutako garraio-merkatu adierazgarrian jarduten, eta, beraz, salatutako jokabideek (Sarrikoko eta Deustuko geraleku berriak eta Bidaide bonua ezartzea) ezin dute LA UNIÓÑek lotutako merkatu horretan duen ahal edo posizioa luzatu.

Hala ere, merkatu geografikoaren ikuspegitik, bi zerbitzuek, hots, LA UNIÓÑek ematen duen erabilera orokorreko zerbitzuak eta ALTUBEk ematen duen erabilera bereziko zerbitzuak elkartu egiten direnez beren ibilbideetan, geraleku berriak gehitzeak eta Bidaide bonua ezartzeak bi merkatuetan dituzten ondorioak aztertuko dira.

- 61.** Erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregularreko merkatuan, hots, LA UNIÓÑek emakida-erregimenean jarduten duen merkatuan dituzten ondorioak aztertzen baditugu, esan dezakegu neurri horiek, orokorrean, lehia handiagoa eragiten dutela eta A3716 linearen erabiltzaileei emandako zerbitzua hobetzen dutela, prezio txikiagoak eta geraleku gehiago eskaintzen baitzaizkie.

- 62.** Zehazki, geraleku berriak gehitzea onuragarria izango da linea lehendik ere erabiltzen zuten eta Sarrikoko eta Deustuko Fakultateetara iristeko ibilbide gehigarria egin behar zuten erabiltzaileentzat; horrez gain, geraleku berri horiek direla-eta zerbitzua interesatuko zaien erabiltzaile berriak erakarri ahal izango ditu. Aitzitik, kaltegarria izango da helmuga Termibus edo Leioa EHU duten erabiltzaileentzat, denbora gehiago beharko dutelako beren helmugara iristeko.

- 63.** A-3716 linean Bidaide bonua ezartzeari dagokionez, adierazi behar da, txartelen prezioei buruz, emakida-agiriekin emakidadunari jartzen dioten muga bakarra gehieneko tarifa batzuk errespetatu behar izatea dela. Gehieneko tarifa horiek dagozkion Foru Aginduen bidez eguneratzen dira. Tarifa horien azpitik, LA UNIÓÑek enpresa-irizpideei jarraituz ezar ditzake prezioak, betiere kontuan hartuta, funtsezko zerbitzu publikoa denez, Administrazioak erabiltzaileentzako prezioak merkeak izatea sustatzen duela, eta, ahal bada, tarifak hobaridunak izatea babesteko modukotzat hartzen diren biztanleriaren sektore jakin batzuentzat, hala nola gazteentzat eta erretiratuentzat.

- 64.** Testuinguru horretan, LA UNIÓÑek A-3716 linean aplikatutako prezioak beste konpainia batzuekin antzeko ibilbideetan aplikatutakoekin eta ALTUBEk bere elkartekideei aplikatutakoekin alderatu ditugu.



Alderaketa hori egiteko erabilitako tarifak LA UNIÓN, AVANZA-PESA, CONDA, LA BURUNDESA, eta ALSA enpresetako webguneen bitartez lortu ditugu. 2019-2020 ikasturtean aplikatutako prezioak aztertu ditugu.

Taulan, aipatutako enpresa bakoitzerako, banako bidaia arruntaren tarifa eta aplikatutako tarifarik merkeena (adinaren eta bidaiariek egindako bidaien kopuruaren arabera) jaso ditugu. LA UNIÓNeen kasuan, tarifarik merkeena Bidaide urteko bonu berdea da, 30 urtetik beherakoentzat eta 65 urtetik gorakoentzat dena.

2019-2020 IKASTURTEAN APLIKATUTAKO TARIFAK								
Enpresa	Ibilbidea	km	Tarifa arrunta		Deskontu handieneko tarifa			Tarifa arruntarekiko deskontua
			€/bidaia	€/km	€/kuota	€/bidaia	€/km	
AVANZA-PESA	Donostia-Zarautz-Vitoria/Gasteiz	127,0	12,60	0,09921	115,92	2,90	0,02282	-% 77,0
<b>ALTUBE</b>	<b>Vitoria-Gasteiz/Bilbo/Leioa/ EHU</b>	<b>81,5</b>			<b>795,00</b>	<b>1,94</b>	<b>0,02379</b>	
<b>LA UNIÓN</b>	<b>Vitoria-Gasteiz/Bilbo/Leioa/ EHU</b>	<b>81,5</b>	<b>7,70</b>	<b>0,09448</b>	<b>795,00</b>	<b>1,94</b>	<b>0,02379</b>	<b>-% 74,8</b>
AVANZA-PESA	Bilbo-Zarautz-Donostia	117,0	12,60	0,10769	115,92	2,90	0,02477	-% 77,0
LA UNIÓN	Gallarta-Vitoria/Gasteiz	91,0	8,65	0,09505	1.232,20	3,01	0,03303	-% 65,3
LA UNIÓN	Algorta-Vitoria/Gasteiz	78,0	7,45	0,09551	1.232,20	3,01	0,03853	-% 59,7
LA UNIÓN	Bilbo-Vitoria/Gasteiz	68,9	6,55	0,09507	1.121,30	2,73	0,03969	-% 58,2
CONDA	Iruña-Donostia	84,0	6,56	0,07810	166,44	3,96	0,04718	-% 39,6
ALSA	Bilbo-Donostia	102,0	6,65	0,06520	135,20	5,41	0,05302	-% 18,7
LA BURUNDESA	Vitoria/Gasteiz-Iruña	99,0	6,76	0,06828	105,46	5,27	0,05326	-% 22,0
LA BURUNDESA	Bilbo-Altsasu	109,0	8,32	0,07633	129,79	6,49	0,05954	-% 22,0
LA BURUNDESA	Bilbo-Iruña	158,0	12,36	0,07823	192,82	9,64	0,06102	-% 22,0

Iturria: Guk geuk egina, enpresek beren webguneetan argitaratutako datuak oinarri hartuta

## 65. Datuen azterketatik honako ondorio hauek atera daitezke:

(i) Aplikatutako tarifa merkeena AVANZA-PESArena da, Donostia-Vitoria/Gasteiz ibilbidean, 0,02282 €/km.

Ondoren, LA UNIÓNeen eta ALTUBEren Bidaide bonu berdea daude, prezio berarekin, Vitoria-Gasteiz / Leioa EHU ibilbidean, 0,02379 €/km.

Hala eta guztiz ere, adierazi behar da ALTUBEk, 2020ko uztailaren 28ko idazkian adierazten duenez, deskontu bat egiten diela unibertsitatean hastean irailean lehen aldiz izena ematen duten ikasleei, lehen hiruhilekoko kuota oparitzen baitie. Horrenbestez, erabiltzaile horiek zehazki 530 € inguruko kuota ordainduko lukete, egindako alderaketako txikiena: 0,1586 €/km.

(ii) Tarifa arruntarekiko deskontu handiena AVANZA-PESA enpresak egiten du, % 77rainoko deskontua egiten baitu aztertutako bi ibilbideetan. Bigarren deskontu handiena, % 74,8koa, LA UNIÓNeK egiten du Vitoria-Gasteiz/Bilbo/Leioa/ EHU A3716 linean. Ondoren, LA UNIÓNeK beste ibilbide batzuetan egiten dituen deskontuak daude: % 65,3, % 59,7 eta % 58,2.

(iii) Ibilbide berean, enpresa desberdinek kilometro bakoitzeko prezio desberdinak (€/km) aplikatzen dituzte.

Esate baterako, Bilbo-Zarautz-Donostia ibilbidean AVANZA-PESAk 0,10769€/km-ko tarifa arrunta du (0,02477€/km deskontuarekin) eta ALSAk 0,06520 €/km-ko tarifa arrunta du (0,05302 €/km deskontuarekin).



**(iv)** Enpresa berak kilometro bakoitzeko prezio desberdina aplikatzen du bere ibilbideetan.

Adibidez, LA UNIÓÑek 0,02379 €/km-ko deskontu-tarifa du Vitoria/Gasteiz-Leioa EHU ibilbidean eta 0,03303 €/km-ko deskontu-tarifa Gallarta-Vitoria/Gasteiz ibilbidean.

AVANZA-PESAK 0,02282 €/km-ko deskontu-tarifa du Donostia-Vitoria/Gasteiz ibilbidean eta 0,02477 €/km-ko deskontu-tarifa Bilbo-Zarautz-Donostia ibilbidean.

LA BURUNDESAK 0,05326 €/km-ko deskontu-tarifa du Vitoria/Gasteiz-Iruña ibilbidean eta 0,06102 €/km-ko deskontu-tarifa Bilbo-Iruña ibilbidean.

- 66.** Laburbilduz, LA UNIÓÑek Bidaide bonu berdean aplikatutako prezioak, ALTUBEren kuotaren berdin-berdinak (ALTUBEk erabiltzaile berriei aplikatzen dien deskontua kontuan hartzen ez bada), ez dira merkatuko txikienak. LEA/AVCren iritziz, kilometro bakoitzeko prezioa konpainia bakoitzak linea bakoitzaren kostuen, eskariaren eta ezaugarrien eta alde zuzenak, banaka, ezarritako enpresa-helburuen arabera ezartzen diren bitartean, ezin da inolako eragozpenik jarri prezioen beherapenei dagokienez, positiboak baitira kontsumitzailearentzat.
- 67.** Bidaide bonuaren prezioen azterketarekin bukatzeko, ondoren egiaztatuko dugu ezin direla prezio harrapakaritzat hartu.
- 68.** LEA/AVCk eskatuta, LA UNIÓÑek bidalitako informaziotik egiaztatu dugu, A3716 linean Bidaide bonua ezartzeak ez duela ekarri autobusen edo gidarien esparruan zerbitzua egiteko erabilitako baliabideak areagotzea. A3700 emakida bateratuari atxikitako guztizko baliabideak bereizi gabe erabiltzen dira emakida hori osatzen duten linea guztietan eta bonua ezarri ondoren ere eutsi zaie.
- 69.** LA UNIÓÑek aurkeztutako zifretatik abiatuta, kalkulatu dugu bidaiari kopurua % 4,66 igo zela A3716 linean 2019. urtean; horrez gain, ustiapen-datuen arabera, kilometro bakoitzeko kostua % 3,64 igo zen; aitzitik, kilometro bakoitzeko diru-sarrerak % 4,95 igo ziren.

Diru-sarreraren igoera erabat logikoa da, kontuan izan behar baita A3716 linearen zerbitzua ez dela ikasleen kolektiboarentzat soilik, baizik eta, arestian esan dugunez, oro har, biztanleria guztiarentzako zerbitzua dela. Ez dugu ahaztu behar LA UNIÓÑek deskonturik handiena 30 urtetik beherako gazteei eta 65 urtetik gorakoei soilik aplikatzen diela; bien bitartean, A3716 linea erabiltzen duten 31 urtetik 64 urtera bitarteko bidaiariek, Bidaide bonu Gorria dutenek, urte bakoitzeko 1.752,30 €-ko kuota ordaintzen dute urtean, hau da, 0,05244€/km, Bidaide bonu berdea eta ALTUBEren kuota baino % 120 garestiagoa, biak 0,02379 €/km-koak baitira. Urteko Bidaide bonua



duten bidaiariak lortutako diru-sarrerei, gainera, hileko eta hiruhileko bonuenak eta tarifa arrunta duten bidaiarienak gehitu behar zaizkie.

Beraz, diru-sarreretan izandako igoera linearen kostuetan izandako igoera baino handiagoa izan denez, La UNIÓÑek aplikatutako prezioa ez da kostuaren azpitik dagoen prezioztat edo prezio harrapakarizat hartzen.

- 70.** Azkenik, egiaztatu dugu ALTUBEren elkartekide kopurua jaitsi ote den LA UNIÓÑek Bidaide Bonua ezarri ondoren. Horrela, LEA/AVCK eskatuta, ALTUBEk aurkeztutako zifrak aztertu ostean, ikusi dugu ALTUBEren elkartekide kopurua ez zela jaitsi 2019an, baizik eta % 3,04 igo zela. Beraz, ALTUBEren erabiltzaileak ez dira LA UNIÓÑek ustiatzen duen lineara aldatu.
- 71.** Hortaz, apartatu honetan egindako azterketaren arabera, esan daiteke salatutako jokabideak ondorio positiboak izan dituela kontsumitzailearen ongizatean, eta, gainera, ez duela eragin erabiltzaileak batetik bestera aldatzea lotutako merkatuan 2019. urtean.
- 72.** Azaldutako guztiarengatik, egindako azterketak ez du aukerarik ematen LA UNIÓÑek A3716 linean ezarritako geraleku eta bonu berriak merkatu nagusian duen posizio adierazgarriaren abusu bidegabekoa direla ondorioztatzeko, eta ez du ondorio baztertzailerik eragin lotutako merkatuan.

### **c. Abusua eta prezio diskriminatzaileak**

- 73.** ALTUBEk LA UNIÓÑek egindako jardun baztertzailerik bat salatu du, zeinaren arabera Arabako ikasleei justifikaziorik gabe egiten baitzaie mesede, beste eremu batzuetako ikasleekin eta beste mota bateko bidaiariekin alderatuta.
- 74.** Erabiltzaileen jatorriaren araberrako prezioen diskriminazioari dagokionez, esan behar dugu aurreko b apartatuan adierazi dugunez, prezioak desberdinak direla linea desberdinetan, baina linea bereko bidaiari guztiek prezio bera ordaintzen dutela, ibilbidea Vitoria-Gasteizen edo Bizkaian hasi; horrez gain, bidaiari guztiek deskontu berak dituzte egiten dituzten bidaien kopuruaren araberr eta duten adin-tartearen araberr.
- 75.** Bestalde, enpresa berak linea desberdinetan prezio desberdinak aplikatzearen arrazoia enpresa motako erabakiak dira. Erabaki horiek ustiapen-kostuetan oinarritzen dira eta kontuan hartzen dituzte, besteak beste, bidaiari kopurua, eskari mota eta eskari horri erantzuteko behar diren bidaldien kopurua. Prezioari ezarritako muga bakarra dagozkion Foru Aginduen bidez ezarritako gehieneko prezioa da.



- 76.** Azaldutako guztiarengatik, egindako ikerketak ez du aukerarik ematen erabiltzaile jakin batzuen aldeko prezio-diskriminazioaren jarduna dagoela ondorioztatzeko.

### **B. Lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea (LDLren 3. artikulua)**

- 77.** ALTUBEk adierazi du LA UNIÓNeN jokaera lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea ere badela. Jokabide hori debekatu egiten du LDLren 3. artikulua.

Salatzaileak ez du zehazten LA UNIÓNeK izan dezakeen lehia desleialeko jokabidea. Hala ere, salaketan azaldutako kontakizun faktiko luzetik ondoriozta daiteke, ALTUBEren iritziz, salatutako jokabideak lehia faltsutzea ekar lezakeela arauak urratzeagatik, eta jokabide hori debekatuta dagoela Lehia Desleialari buruzko 3/1991 Legearen 15. artikuluan. Era berean, LDLren 16. artikulua debekatutako prezio-diskriminazioa eta LDLren 17.2 artikulua debekatutako galerazko salmenta ekar ditzake.

- 78.** LDLren 3. artikulua lehia askea interes publikoari eragiten dioten egintza desleialen bidez faltsutzea debekatzen du. Egintza horiek Lehia Desleialari buruzko 3/1991 Legearen (LDL) arabera definitzen dira, arau horretan tipifikatzen baitira jokabide desleial horiek. Egintza horiek merkatuan egin behar dira eta lehia-helburuarekin (LDLren 2. artikulua).

Halaber, modu bereziki larrian edo garrantzitsuan eragin behar diote interes publikoari, bereziki jokabide desleialaren benetako ondorioengatik edo sor litezkeen ondorioengatik.

- 79.** Auzitegi Gorenaren jurisprudentziako doktrinak, lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzeari dagokionez, adierazten du lehia desleialeko egintzak debekatutako jokabide gisa zehatu ahal izateko, beharrezkoa dela egintza horiek «larriki desitxuratzea merkatuko lehia-baldintzak» eta «desitxuratze horrek interes publikoan eragina izatea». (Auzitegi Gorenaren 3887/2006. ECLI:ES:2006:3887 Epaiaren 10. Zuzenbideko Oinarria).

- 80.** Horrela, lehia askea babesteko ardura duten administrazio-erakundeen ustezko jarduketa (erakunde horien artean dago LEA), bidezkoa izango da soilik enpresaburuen jokabide desleialek, desleialak izateaz gain, lehia modu nabarmenean faltsutzen badute, hau da, merkatuko lehia-baldintzak larriki desitxuratzen badituzte eta interes publikoari kalte egiten badiote. Aurreikuspen hori era guztietako operadore ekonomikoari aplikatzen zaie.



### **a. Lehia-arauak urratzea, prezio-diskriminazioa eta galerazko salmenta**

**81.** Lehia desleialtzat har daitezkeen kasuen artean, LDLk ezartzen duenez, egintza desleialtzat hartuko da arauak urratzea eta horien artean lehia-jarduera arautzen duten arau juridikoak hausten dituztenak (LDLren 15.2 artikulua)<sup>6</sup>.

**82.** Lehia-arauak urratzeagatiko lehia desleialari dagokionez, Auzitegi Gorenak honako hau ezarri du azken STS 1922/2017 - ECLI: ES:TS:2017:1922 Epaia ren 7. Zuzenbideko Oinarrian:

«Merkatu-arauren baten urraketa desleialtzat hartzeko, balorazio juridiko espezifiko eta independentea egin behar da jardueraren legezotasun ezari buruzkoaz gain (premia propioetan oinarritzen da). Kalifikazio horrekin, eragin den kaltea arau-hauste soilari legokiokeena handiagoa da. (...)

Eta, esan bezala, Lehia Desleialari buruzko Legearen 15. artikuluko lehen bi apartatuetako leialtasunik ezaren aurreikuspena ez da urratutako arauak aurreikusitakoari gehitutako beste zehapen orokor bat, baizik eta legez kontrako jarduerari legokiokeenaz bestelako bat, eta, beraz, urratu den arauari dagokionaz bestelako zehapen bat legokioke; izan ere, Lehia Desleialari buruzko Legearen 15.2 artikulua ren helburua ez da lehia-arauren urraketak zigortzea, baizik eta arau-hauste bidez lortutako lehia-abantaila nabarmenaren prebalentzia zigortzea».

Gainera, bere 9. Zuzenbideko Oinarrian ezartzen duenez,

«(...) Lehia Desleialari buruzko Legearen 15.2 artikuluko jokabide desleialaren zuzeneko objektua interes orokorraren babesa da, alegia, legez kanpoko lehiagatik beharrean, lehia-efizientziagatik diharduen merkaturia babestea. Halaber, lehiakideen interesa ere babesten da, haien jokabide debekatuak zigortzen dituzenez; jarduera debekatuok galera ekonomiko en iturri bihur daitezke merkaturia lehiatzeko gutxiagotasun-egoeran daudenez».

**83.** Era berean, LDLren 16. artikuluan honako hau debekatzen da: kontsumitzaileei tratu diskriminatzailea ematea prezioei eta saltzeko gainerako baldintzei dagokienez, non eta tartean arrazoi justifikaturik ez dagoen, eta hori guztia desleialtzat joko da.

**84.** Azkenik, LDLren 17.2 artikuluan galerazko salmenta debekatzen da, baldin eta lehiakide bat edo lehiakide talde bat merkaturia kanporatzeko estrategia baten zati bada.

---

<sup>6</sup> 3/1991 Legeak, Lehia Desleialari buruzkoak, bere 15. artikuluan arauak urratzeagatiko lehia desleiala arautzen du: 1. Desleialtzat jotzen da legeak urratuz eskuratutako lehia-abantaila bat baliatuta merkaturia nagusitzea. Abantailak esanguratsua izan behar du. 2. Era berean, desleialtzat joko da lehia-jarduera erregulatzea xedetzat duten arau juridiko en urratze hutsa. 3. Era berean, 2. artikulua xedaturikoaren barruan, desleialtzat jotzen da atzerritartasunari buruzko legeriaren arabera lorturiko lan-baimenik ez duten atzerritarrak kontratatzea.



**b. LDLren 3. artikulua babesean salatutako jokabidearen azterketa, LDLren 15., 16. eta 17.2 artikuluei dagokienez**

85. LA UNIÓÑek, eskatutako geralekuetarako baimena jaso ondoren, Bidaide bonu berdeak ezarri ditu A-3716 linean, eta hobariak ezarri ditu tarifa 30 urtetik beherako eta 65 urtetik gorako erabiltzaileentzat, ALTUBEko bazkideak erakartzeko eta ALTUBE merkatutik botatzeko, salatzailearen iritziz.
86. Lehiaren Euskal Kontseilu honek aurreratzen du salatutako jokabideak ez duela lehia faltsutzen egintza desleialengatik, ondoren argudiatuko dugun bezala.
87. Ez da lehia-araurik urratzen. BFAk geralekuak eta bidaldien ordutegi berriak baimendu zituen, EBGLren 26. artikulua eta LGARren 95. artikulua araberan, baina horrek ez du emakida-kontratua funtsean aldatzea ekarriko, salatzaileak adierazi duen bezala.

Aitzitik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako 247/2020 Epaiaren Zortzigarren Oinarriko Zuzenbidean adierazi duenez,

«566/ 2018 Foru Aginduak baimendutako aldaketen (geralekuak eta ordutegiak) izaerari buruz errekurtsogileak emandako argudioetan ez da kontuan hartzen apirilaren 3ko 51/2012 Dekretuaren bidez onartutako Errepideko bidaiari-garraioaren Erregelamenduaren 34.1 artikulua:

«Ez dira zerbitzu publikoko kontratuaren aldaketa gisa hartuko zerbitzua emateko baldintza jakinetan egiten diren aldaketak, hala nola egutegia, bidaldien ordutegiak, ibilgailuak berritzea eta geralekuen kokapen geografikoa».

Beraz, behin-behineko edo bigarren mailako aldaketak dira, funtsezkoak ez direnak, errekurtsogileak lege ezarritako prozeduraren ez-betetzea alegatzeko arrazoi gisa adierazten duen bezala; jendaurreko informazioaren izapideak eta geraleku berriei eutsiko dien azpiegiturari buruz organo edo erakunde eskudunak emandako aldeko txostena (LGARren 95. artikulua)».

(....)

Bestalde, (.....) errekurtsogileak aipatutako ebazpenak ezin dira 566/2015 Foru Aginduak ebatzitako prozeduraren aurrekaritzat hartu, haietan aztertutako aldaketen eta lehen aipatutako Foru Aginduak baimendutakoen artean dagoen aldea alde batera utzita ere, ez duelako inolako baliorik, eskatu ahalako ahalmen baten adierazpen izanda ere, alegatua egintzaren elementu arautu bati buruzkoa denean (prozedura); salbu eta ahal arautuak baliatzen direnean, kasu honetan bezala.

(....).

Beraz, LA UNIÓÑek geraleku berriak eskatzea, BFAk geraleku horiek baimentzea eta emakidadunak linea baimendutako geralekuekin eta ordutegiarekin garatzea ez dira, inola ere, LDLren 15. artikuluan debekatzen den lehia-araua urratzea.



- 88.** Era berean, ez da egiaztatu prezio-diskriminazioa egin denik erabiltzaileen jatorriaren arabera, ebazpen honetako 74. lerrokatatik 77. lerrokadara bitartekoetan adierazi denez, eta, beraz, ezin da ebatzi LDLren 17.2 artikuluan debekatzen den jokabidea dagoenik.
- 89.** Azkenik, ez dago galerazko salmentarik LA UNIÓNeK A-3716 linean jarritako Bidaide Bonu berdean. 63. lerrokatatik 65. lerrokadara bitartekoetan adierazi dugunez, A3716 linean Bidaide bonua ezartzeak ez du ekarri autobusen edo gidarien esparruan zerbitzua egiteko erabilitako baliabideak areagotzea. A3700 emakida bateratuari atxikitako guztizko baliabideak bereizi gabe erabiltzen dira emakida hori osatzen duten linea guztietan eta bonua ezarri ondoren ere eutsi zaie. Gainera, LA UNIÓNeN ustiapen-datuaren arabera, kilometro bakoitzeko kostua % 3,64 igo zen; aitzitik, kilometro bakoitzeko diru-sarrerak % 4,95 igo ziren. Beraz, LA UNIÓNeK aplikatutako prezioa ez da prezio harrapakarizat, hots, kostuaren azpitik dagoen prezioztat hartzen.
- Horregatik, ez da LDLren 17.2 artikuluan ezarritako galerazko salmentako jokabide debekatua.

### **c. Eragin handia izatea merkatuan**

- 90.** Lehia egintza desleialengatik faltsutzearen adierazle izan daitekeen merkatu-kalte larriari dagokionez, ebazpen honen 71. lerrokan adierazi denez, 2019-2020 ikasturtean salatutako jokabideak ez du eragin erabiltzaileak batetik bestera (ALTUBETIK LA UNIÓNeN) aldatzea merkatuan, eta ondorio positiboak izan ditu kontsumitzailearen ongizatean.
- 91.** Adierazitakoagatik, ondorioztatu behar da salatutako jokabideak ez duela lehia faltsutzen egintza desleialengatik.

## **3. EBAZPENA EMATEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA**

- 92.** LDLren 49.3 artikuluan ezartzen denez, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzaren proposamenez, Lege honen 1., 2. eta 3. artikuluetan debekaturiko jokabideak ustez burutu izatetik eratorritako prozedurak ez abiaraztea eta auzibide-agiriak artxibatzea erabaki dezake legea hautsi den zantzurik ez dela irizten badio.
- 93.** Lehia Defendatzeko Erregelamenduak (LDE) –otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren bidez onartu zen– 25. artikuluan ezartzen du salaketa jarri izana ez dela loteslea eta ez duela behartzen Ikerketa Zuzendaritza zehapen-prozedura abian





jartzera. Prozedura ez irekitzeko erabakia salatzaileari komunikatu beharko zaio, azalduz prozedura irekitzea zergatik ez den bidezko.

94. Aipatutako manuak eta orokorrean aplikatzekoak direnak ikusita, Lehiaren Euskal Kontseilu honek,

## VI. EBAZTEN DU

**LEHENA:** Zehapen-prozedurarik ez hastea eta erreferentziako isil-gordeko informazioaren esparruan egindako eta izapidetutako jarduerak artxibatzea, ez baitago lehiaren defentsaren arloko araudia urratu delako zantzurik, ALTUBE UNIBERTSITATE ELKARTEAK Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Autobuses LA UNIÓN SAREN aurka aurkeztutako salaketari dagokionez.

**BIGARRENA:** Konfidentziazat deklaratzeko interesdun ororentzat, eta dokumentu hauen pieza banandua sortzea:

- 1. pieza banandua:

LA UNIÓNek LEA/AVCk egindako informazio-eskaerari 2020ko uztailaren 22an emandako erantzuna: 737. foliotik 770.era bitartekoak.

- 2. pieza banandua:

2020ko uztailaren 28an ALTUBEk LEA/AVCren informazio-eskaerari emandako erantzuna: 1091. foliotik 1112.era bitartekoak, 1131. foliotik 1184.era bitartekoak (5. eranskinetik 8.era), baita 1187. foliotik 1268.era bitartekoak ere (10. eta 11. eranskinak).

**HIRUGARRENA:** Ebazpen honen berri ematea Lehiaren Euskal Agintaritzaren lerketa Zuzendaritzari, baita interesdun guztiei ere, eta orobat jakinaraztea ebazpenak amaiera ematen diola administrazio-bideari, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daitekeela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik hasita.